



Izen abizena: \_\_\_\_\_

## ENERGIA SKATE PISTA BATEAN


### Erantzun hurrengo galderi:

1. Erabili ezazu bost minututan <https://phet.colorado.edu/eu/simulation/energy-skate-park-basics> skate pistaren simulazioa.
2. Barra diagrama aktibatu eta erantzun:
  - a) Energia potentziala noiz da maximoa? \_\_\_\_\_  
Eta noiz hartzen du bere balio minimoa? \_\_\_\_\_
  - b) Energia zinetikoa noiz da maximoa? \_\_\_\_\_  
Noiz hartzen du balio minimoa? \_\_\_\_\_
  - c) Noiz daukate balio berbera energia potentzialak eta zinetikoak? \_\_\_\_\_
  - d) Zein erlazio aurkitzen duzu barra diagraman energia zinetiko , potentzial eta mekanikoaren artean?  
Idatzi edo marraztu erantzuna:

3. Hurrengo taulan, esan kantitate bakoitza handitu, txikitu edo berdin mantentzen den.

Patinatzailearen mugimendua		Energia potentziala	Energia zinetikoa	Abiadura	Energia totala
Pintan zehar igotzen					
Pistan zehar jaisten					

4. Hartu patinatzailea eta mugitu simulaziotik. Zer gertatzen zaio energia potentzialari? Zein puntutan dauka energia potentzial maximoa? Zein puntutan minimoa?
5. Patinatzailea puntu altuenetik hasita. Markatu beheko pistan non dagoen patinatzailea, bere gaineko grafikoarekin bat etortzeko. Ondoren baieztatu ezazu simuladorea erabiliz ea ondo egin duzun.



6. Osatu taula esanez energia handitu, txikitu edo berdin mantentzen den, patinatzailearen masa aldatzen badugu.

	Masa handituz	Masa txikituz
Energia zinetikoa		
Energia potentziala		
Energia osoa		

7. Ipini patinatzailea U itxurako pistan altuera desberdinetan eta aztertu bere mugimendua. Zein izango da patinatzaileak hartuko duen altuera maximoa pistaren bestaldean? Egin behar haina proba kopurua eta azaldu zure hitzekin nola aurrean dezakezun iritsiko den altuera.

- Erabili energiaren kontserbazioaren legea, patinatzailea noraino iritsiko den eta nondik abiatu dugun arabera.

### Azken ondorioa

Zeren menpekoa da energia potentziala? \_\_\_\_\_

Zeren menpekoa da energia zinetikoa? \_\_\_\_\_

ikasi duzunaren arabera, zer dio energiaren kontserbazio legeak? \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_